ZER DA KOMIKIA?

CHUSE 2020

Komikia **marrazkiz eta hitzez osatzen den istorioa** edo kontakizuna da.

Istorioa **eszenetan banatzen da**, eszena bakoitza **marko baten barruan** marraztuta.

KOMIKIEN ELEMENTUAK:

Binetak: Istoriaren **eszenak** , marko edo **lerro batez inguratuta.**

Bunbuiloa edo bokadiloa: **Pertsonaiak hitz egiten edo pentsatzen duena biltzen duen** hodei iturako **ikurrak**

Onomatopeiak: **zaratak adierazteko** erabiltzen diren **hitzak.**

DANBA!

Ideogramak: Pertsonaien **buruaren inguruan** marrazten diren **lerroak**, normalean beraien **sentimenduak adierazteko**.

Mugimendu lerroak: Pertsonaiaren **mugimenduak adieratzeko** marrazten diren **lerroak.**

Azpidatzia: **Narratzaileak** kontatzen duena jasotzen duen laukia.

BAT-BATEAN...

Lotu marra baten bidez komikiaren elementu bakoitza bere izenarekin

DANBA!

BAT-BATEAN...

ONOMATOPEIA

MUGIMENDU LERROAK

HIZKETA BUNBUILOA

BINETA

AZPIDATZIA

PENTSAMENDU BUNBUILOA

IDEOGRAMA

Irakurri ondo komikigintzan erabiltzen diren elementuak eta esaldiak osatu:

Pertsonai baten sentimenduak adierazteko, lerro batzuk marrazten zaizkio. Lerro horiei deitzen zaie.

Komikiaren eszena bat inguratzen duen markoari deitzen diogu.

Pertsonai baten mugimendua adierazteko, erabiltzen dira.

Pertsonaiek hitz egiten edo pentsatzen dutena idatzen da.

Onomatopeiak erabiltzen diren hitzak dira.

Azpidatzietan idatzen da.

Ezagutzen al dituzu pertsonai hauek? Nola deitzen dira?

Tintin | **Milu** | **Haddok kapitaina** | **Asterix** | **Obelix** | **Ideafix**